

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2423

*654/2017 EBAZPENA, maiatzaren 5ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Olatz Olano Arancibia andrea Tolosako Erakunde Sanitario Integratuko Kudeaketa-zuzendariaren kargutik kentzeko dena, berak hala eskatuta.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 15eko 1020/2015 Ebazpenaren bidez (ekainaren 16ko EHAA, 111. zk.) Olatz Olano Arancibia andrea Tolosako Erakunde Sanitario Integratuko Kudeaketa-zuzendari izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, zuzendaritza nagusi honek hauxe

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Olatz Olano Arancibia andrea Tolosako Erakunde Sanitario Integratuko Kudeaketa-zuzendariaren lanpostutik kentzea, berak hala eskatuta, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2017ko maiatzaren 9tik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari, Tolosako Erakunde Sanitario Integratuari, eta Giza Baliabideetako Zuzendariordezari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 5a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.